Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

**ZORTZIGARRENA**

**8.- EAJ-PNV ALDERDIKO ZINEGOTZI ZEN CRISTINA GOYA AMIAMAREN HERIOTZAREN BERRI EMAN ETA ZINEGOTZI BERRIA IZENDATZEKO PROZEDURA MARTXAN EZARRI.**

Udal honetako zinegotzi eta EAJ-PNV alderdiko kide zen Cristina Goya Amiama andrea hil zen 2018ko urtarrilaren 3an. Berak 2015eko maiatzaren 15ean eginiko udal hauteskundeen ondoren hartu zuen kargu.

Ikusi da udal idazkariaren 2018ko urtarrilaren 16ko txostena eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 9.4 art.ak , (azaroaren 26ko 2568/1968 Errege Dekretuak onartuak) eta ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen orokorraren 5/1985 lege Organikoaren 182 art.ak xedaturikoaren arabera, 2018ko urtarrilaren 18ko Pertsonal Batzorde informatiboak proposatuta, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERBAKITZEN DU

LEHENA.- Udal honetako zinegotzi eta EAJ-PNV alderdiko kide zen Cristina Goya Amiamaren heriotzaren berri ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hauteskunde Batzordeari JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGUREN en egiaztagutuna egin dezan karguak hartzeko, berau baita azken udal hauteskundeetako zerrendan hurrengoa.